



# PARTE HARTZEKO OINARRIAK



teatroamateur.com

Vital

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA



Alegria-Dulantziko Udala  
Ayuntamiento Alegria-Dulantzi

Noticias de Alava

Diario



# PARTE HARTZEKO OINARRIAK

## 19. Antzerki Amateur Jaialdia

### ALEGRÍA-DULANTZI 2025

[www.teatroamateur.com](http://www.teatroamateur.com)

#### JAIALDIA

1. Jaialdia Alegria-Dulantziko Kultur Etxeko Txema Blasco Auditoriumean egingo da. Bertako langileak eta ekipamendu teknikoa jaialdiaren eskura egongo dira.
2. Edozein tokitako antzerki-talde ez profesionalak parte hartu ahal izango dute, eta beren antzezlanen edukia —familiei edo haurrei begirakoak barne—, estiloa eta hizkuntza ere edozein motatakoak izan ahalko dira. Talde bakoitzak, gehienez, 2 antzezlan aurkeztu ahal izango ditu.
3. Jaialdia azaroaren 7tik 29ra egingo da, honela:  
**Jaialdia: 7tik 29ra bitarteko asteburuetan izango da** —ostirala, larunbata eta igandea—; haurrentzako lan bat barne.

**Amaiera-ekitaldia eta sari-banaketa:  
29an, larunbatean.**

Antzezpen guztiak eta amaiera-ekitaldia 19:30ean izango dira; umeentzako emanaldia, berriz, 18:00etan.

4. Telefono-zenbaki hauetara deituta, jaialdiaren eta parte-hartzeko oinarrien gaineko informazioa jaso ahal izango da:

Kultura Zerbitzua.

Telefono-zenbakia: 945 420 830, astelehene-  
tik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.

Kultur Etxea. Telefono zenbakia: 945 420 704  
astelehene-  
tik ostiralera 16:00etatik 21:00etara.

Horrez gain, [www.teatroamateur.com](http://www.teatroamateur.com) web-  
gunean jaialdiari eta auditoriumari buruzko  
informazio guztia egongo da eskuragarri.

#### IZENA EMATEKO

5. Taldeek **2025ko ekainaren 13era** arte eman ahal izango dute izena.
6. **Izen ematea online egingo da.**

Horretako, parte hartzeko formularioa bete beharko da, helbide honetan:  
[www.alegria-dulantzi.eus](http://www.alegria-dulantzi.eus)  
[www.teatroamateur.com](http://www.teatroamateur.com)



#### LANEN HAUTAKETA

7. Hautaketa Batzorde batek aukeratuko ditu, aurkezten diren proposamen guztien artean, 9 antzezlan parte-hartzaileak —**tartean, haurrentzako lan bat**—. Batzordearen erabakia apelaezina izango da.
8. Hautaturiko lanek egokitzen zaien emanaldi-eguna baino lehen izan beharko dute antzeztu ahal izateko dagokion baimena (SGA Erena edo egilearena, hala badagokio), ezinbestean. Behar izanez gero, antolakuntzak izapide hori erraztuko die hautatutako taldeei.
9. Hautaturiko antzezlanak aldaketarik egin gabe antzeztu beharko dira, hau da, aurrez bidalitako dokumentazioan jasotako testu eta aktore berberei eutsita; zerbait aldatuko balitz, antolakuntzari garaiz jakinarazi beharko zaio, bestela posible izango da epaimahaiak horregatik deskalifikatzea.

10. Hautaketa egindakoan, posta elektronikoz jakinaraziko zaie bai aukeraturiko taldeei bai aukeratu gabeei.

**Hautaketa eta jakinarazpena iraila bukatu baino lehen egingo dira.**

11. Hautaturiko taldeek, dossier batean, hainbat konturi buruzko informazioa jasoko dute: jaialdiaren antolaketa eta funtzionamendua, Txema Blasco Auditoriumarekin loturiko datu teknikoak eta hara iristeko modua, eta udalerrinari buruzko informazio orokorra.

## DIRULAGUNTZEI ETA SARIOI BURUZ

12. Jaialdian parte hartzen duten 9 taldeek 900€-ko dirulaguntza bana jasoko dute joan-etorrietarako eta emanaldirako, bai eta partaidetza-diploma bana ere. Emanaldien hurrenkera antolakuntzak erabakiko du.

SGAErekin loturiko kudeaketa eta ordainketa Alegria-Dulantziko Udalak hartuko ditu bere gain.

13. Sari hauek banatuko dira:

### Muntaketa Hoberena

1. Saria Jose Antonio Isasi Urrez Memoriala. Saria
2. Saria.- Saria

**Aktoresa Nagusi Hoberena:** Saria

**Bigarren Mailako Aktoresa Hoberena:** Saria

**Aktore Nagusi Hoberena:** Saria

**Bigarren Mailako Aktore Hoberena:** Saria

**Ikusleen Saria:** Saria

**Epaimahaiaren Sari Berezia:** gorago jasotako sarietan ez dagoen edozein alderdi nabarmentzeko saria, epaimahaiaren arabera (eszenografia, jantziak, etab.).

Sariak tokiko artista batek jaialdirako propio egindako obra originalak dira.

14. Partaidetza-diplomak eta sariak **Amaiera Ekitaldian banatuko dira, non udal-ordezkariek talde parte-hartzaile guztiekin bilduko**

**diren**, azaroaren 29an, larunbatean. Talde parte-hartzaileek nahitaez joan beharko dute ekitaldi honetara, gutxienez haien ordezkari bat; bestela, dirulaguntza galduko dute.

15. Dirulaguntzak eta sariak ordainduko dira, gehienez, jaialdiaren amaiera-ekitaldia egin eta 30 eguneko epean.

## LEHIAKETA-FASEARI BURUZ

16. Jaialdiko epaimahaia, Kultura Zinegotzia edo hark eskuordeturiko pertsona, eta antzerkiaren eta kulturaren esparruarekin lotura duten lagunek osatuko dute.
17. Epaia eta oinarri hauetan jaso gabeko guztia- ren gaineko interpretazioa apelaezinak izango dira, eta goian jasotako edozein sari banatu barik geratu ahal izango da.
18. Jaialdian izena emateak oinarri hauek onartzea dakar berarekin, bai eta oinarriotan jaso gabeko edozein konturi buruz antolakuntzak har dezakeen edozein erabaki ere.

